

Andre nobia, ilehoria, ideki zazu ataria

Zaila da egun euskaldun izatea. Egunetik egunera zailagoa gainera. Efikaziaren izenean hezurretaraino sartu zaigun erdalduntasunak euskaldunok zokoratu egin gaitu, inozokeria eta harrokeriaren zokoetara bidali gaitu. «Betikoa da ta besterik ez dakigu» ala «Euskaldunok munduan ez dugu parerik». Bi horien arteko zirikiturik ez dela geratzen sinestarazi nahi digute. Eta *Euskal* edo *Eusko* aurrizkiaz izena hartzen duten erakunde askotxo laguntzaile dira bide horretan.

Eskerrak Maurizio Elizalde —eta Felix Iriarte, eta Mariano Izeta...— eta hainbaten antzekoak geratu zaizkigun. Haiengana hurbiltzea arnasaren bitartez ikastea da beti. Baina, tamalez, Mauriziooren arnasa Larunbat Santu goizez ito zitzaigun.

Maurizioerekiko nere harremana aspaldikoa da. Hamazazpi urte nituela, txistuan oraindik hasi berria, Iruñeko San Ferminetan ezagutu nuen. Ansorena nintzela esatean, kokotsa mugitu zuen, onarpen gisan. Gerora maiz topatu genuen elkar. Hondarribian kasik urtero irailaren 11n. Lizarran, 1971n Aita Hilario Olazarani egin zitzaion emanaldiaren oroitzapen apartekoa geratu zait. Luze mintzatu ginen eta hainbat doinu erakutsi zidan.

Gure telebista saioetara —'Don Don Kikilikon' eta 'Funtzioa'— ekarri genuen, betiko Felix lagun zuela. Baina ohorerik handiena, gure taldearen izenean, Maurizioentzat Txistulari El-



JOSE INAZIO ANSORENA

karteko Urrezko Domina eskatzea izan zen. Eta emateko antolatu zen omenaldian elkarri eman genion besarkada ez zait sekulan ahaztuko.

Omenaldi horretan aurkezle izatea egokitu zitzaidan. Jakina, aurkezpenak eta hitzaldiak, denak euskaraz izan ziren. Nola bestela Arizkunen? Han harrikoskorrek ere euskaraz egiten dute. Denak euskaraz... bat ez beste. Politikoarena. Ez dut nor eta zein alderditakoa zen esango, baina ohi bezala, hitzaldia nola hasi zuen bai: «Barkatu... nik euskaraz gutxi...» Eta erdaraz mintzatu zen.

Sarri sufritu behar izan dugun eszena horrek Mauriziooren omenaldian eta Arizkun sakrilegio itxura hartu zuen. Han geundenok barkatuko genion —barkatu beharrik ere ez zegoen— euskaraz ez jakitea. Baina ekintza hartan erdaraz egitea ez. Hobe zukeen isilik geratu izan balitz. Hizketaldi horretan ari zela, Maurizioari begiratu nion. Ez zuen kasurik egiten. Arrotza gertatzen zitzaion nonbait.

Gaur Maurizio ez da gure artean. Bere txistu eta danbolina hartuta, agian petxuan Urrezko Domina jantzita; betirako bidean barrena abiatu da. Eta, ziur aski, bere bizitzan alaitu zituen laurhun eta hamasei etzetan bezala, txistu saioen etenaldietan ezkonberrien koplak kantatuko ditu: «Andre nobia, ilehoria, ideki zazu ataria...» Mauriziooren aspaldiko soinuari, andre nobiaren antzera, zabalduko ahal diogu gure bihotzaren atea! Anitz urtez!



● Antonio Elizalde eta Maurizio semea (atabalarekin) Aita Donostia musikariarekin eta Arizkuneko dantzariarekin batera ageri dira goiko argazki horretan. Bilbon 1933an, eskainiriko emanaldiko argazkia dugu. Eskuineko argazkian, Maurizio Elizalde Etxeberria eta Felix Iriarte Iribarren atabalaria. Urte anitz eman zituzten elkarrekin plazaz plaza.



Elizalde aita-semeak, txistua jo eta irakatsi

DONOSTIA

Antonio Elizalde aita eta Maurizio Elizalde semea, Baztango bailarako folkloreak onduena bildu, txukundu, gorde eta ezagutzera eman izan duten bakarrentarikoak izan dira. Antonio Elizaldek, Manuel eta Joshe Angel Dorremotz anaiengandik ahoz ikasi zituen, geroago bere semeak erakutsiko zizkion pieza asko eta asko. XIX mendeko bi txistulari hauek mutildantza, irridantza, sagardantza, zortziko, okadantza, kalejira, jota, porrusalda eta bestelako dantza multzo handi bat erakutsi zizkieten Elizalde aitari. Melodiak ikasteaz gain, dantza hauen pausu eta tajukera zuzena ere ikasi zuen eta beraz, dantza hauen irakasle ere izan zen.

1984ean jaio zen Aniz herrian eta hiru urte zituelarik Amaiurko Lizundegiko Mendia baserriira joan zen bizitzera bere familia-

rekin. Hogeitabi urte bete berriak zituela, piztu zitzaion musikarako grina eta txistua jotzeari ekin zion. Raimundo bere anaiak klarineta jotzen zuen eta Antoniok ere ikasi zuen musika tresna hau menderatzen. 1910ean plazaratu zen lehen aldikoz jendaurrera, Ignacio Santxotena Iruritako txistulariarekin batera. Plazak ugarituz zihoazela Arizkongo txistulari ofizialaren postua eskuratu zuen eta bertara joan zen bizitzera. Garai hartan ezagutu zituen Aita Donostia eta Hilario Olazaran musikariak. Bi musikologo lagun hauen bitartez, bitan Bilbon jo zuen Antoniok, Arizkongo dantzariarekin batean eta behin Barcelonako Nazioarteko Azokan.

TXISTUA ETA KLARINETEA Ordurako Antonioren lanak bazuen segidarik, Maurizio semearengan (1915ean jaioa Amaiurko Lizundegiko

Mendia baserrian). Aitak irakatsita jaso zituen txistuaren lehen ikastaroak (bai eta klarineta ere). Solfeo ikasketak berriz, Arizkongo organojoleak, Benito Irurak eta Errazuko organojoleak, Emiliano Apezetxeak zuzendurik ikasi zituen. Bere aitak erakutsi dantza eta kantu multzoa Baztango bailaran zehar ikasitako beste batzuekin ugaldu zuen. 1943an melodia gutxi hauek pentagraman idatzi zituen eta partitura guztiak Elizondoko udal-txetan gorde ziren Aita Donostiak zuzendu eta gero.

Maurizio, aitarekin batera agertu zen lehen aldikoz plazan hamabi urte zituelarik. Aitarekin ibiltzen zen atabalariak, Jose Telletxeak egiteko hau aldera utzi zuenean, Elizalde aita-semeak bikotea hasi zen plazaz plaza jotzen. Txistua esku batean eta klarineta bestean zutela ibiltzen ziren eta bi instrumentuak jotzen zituzten, dantza bakoitzaren

arabera. Sona handia lortu zuten Baztan eta inguruetan, bereziki semeak txistua jotzeko zuen estiloarengatik. 1950ean aita jubilatuta eta Felix Iriarte atabalariarekin urteak eman ditu Maurizio Elizaldek. Bere estilo berezia dela eta, Baztango musikarekin osatutako iraupen luzeko hiru disko grabatu izan ditu.

Aita erretiratu zenetik ez zuen gehiago klarineterik jo Mauriziook, bere esanetan gehiago auzartzen ez zela eta. Baztango folkloreak jakitun nagusi bihurtu zen geroztik. Berrogi urtetan zehar Arizkongo txistulari ofiziala izan da, bai eta bertako txistu irakasle. Gipuzkoa nahiz Nafarroan omenaldi ugari jasotakoa dugu Maurizio, dudarik gabe garrantzitsua eta azkena iazko irailaren 22an egin zitzaion, Euskal Herriko Txistularien Elkarrekin Urrezko Domina eman zionean. Orain hiru urte utzi zuen txistulari postua.

«Jotzerakoan sentimendua eta gogoa-behar da, bestela alferrik da»

6 Aitak, erakutsi zidan, hamaika urte nituela. Geroztik jarraitu nuen jotzen etengabe, gelditu ere egin gabe, beti gustora. Gustorik ez badago ez dago ezer egiterik, ezta txistua jotzerik ere. Dudarik gabe aita izan nuen maisu ona.

6 1943an hasi nintzen pittaka-pittaka kantak biltzen, aitak erakutsi eta nik ikasiak; mutil-dantzak partituretan jarri behar nituela esan zidan aitak eta baita nik lortu ere.

6 (Aitarengandik ikasitakoa) nik berri egin dut, perfektionatu, batzuetan tonu desberdinetan. Aita ohitura zaharrekoa zen.

6 Kanta denak buruz ikasi nituen. Gero idatzi eta dudarik baldin banuen, txistua hartu eta zuzendu egiten nuen. Ez da lan makala. Gaur ez baziren lan horiek egin, denak galduta zeuden. Baztango abestiak biltzen, ez da beste inor atera lan hori egiten. Gusto eta pazientziarekin egin nituen nik, gustu eta astiarekin.

6 (Txistua beste musika trenekin nahastea) zaila da, egin izan dira saioak, baina nik orain arte ibili ditudan txistuekin ez da ez akordeonistarik, ez inor jotzen ahal duenik. Ni saiatu izan naiz, baina alferrik ibiltzea da, txistua instrumentu independentea bait da.

6 Gure musika berdina da beti, eta hala behar luke, nahaste-borrasterik gabe. Gaur egun honelako gehiegi dago, eta zoritxarrez lehengo dantza zaharrak akitu dira.

6 Jotzerakoan sentimendua eta gogoa behar da, barrutik egin behar da, bestela alferrik aritzea da.

□ 'Argia' aldizkari 1.354. zenbakitik hartuak. 1991ko, irailak 29.